

ZERAINGO HARIZTI ERDI
ATERPETXEKO SUKALDARI ETA
LAGUNTZAILE BEHIN BEHINEKO
LAN-POLTSA OSATZEKO PROZESUA
ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK.

BASES POR LAS QUE SE HA DE
REGIR EL PROCESO PARA LA
CREACIÓN DE UNA BOLSA DE
TRABAJO TEMPORAL DE
COCINERO-A Y AYUDANTE-A DEL
ALBERGUE HARIZTI ERDI DE ZERAIN

Lehena. Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea da zehazki, sukaldari eta laguntzaileen behin behineko izaera duen lan-poltsa osatzea, Harizti erdi aterpetxean dauden beharrak asetu ahal izateko.

Sukaldariaren lansariari dagokionez urteko soldata gordina 21.000 € koa izango da.

Laguntzailearen lansariari dagokionez urteko soldata gordina 18.000 € koa izango da.

Lanaldia ZERAIN DEZAGUN FUNDAZIOAK jarritakoa izango da, betiere zerbitzuaren izaera eta beharren arabera.

Lanpoltsa honen indarraldia bost urtekoa izango da.

Primera. Objeto de la convocatoria.

El objeto de la presente convocatoria es la creación de una bolsa de cocinero y ayudante con carácter temporal, a fin de cubrir las necesidades que existen en el albergue Harizti erdi.

La retribución del cocinero será de 21.000 € brutos /año

La retribución del ayudante será de 18.000 € brutos /año

La jornada de trabajo será la que establezca ZERAIN DEZAGUN FUNDAZIOA atendiendo, en todo caso a la naturaleza y necesidades del servicio.

La vigencia de esta bolsa será de cinco años.

Bigarrena. Izangaiek bete beharreko baldintzak.

Izangaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte onartuak izateko, eta halakorik balego, lehiaketa-oposizioan parte hartzeko:

1. Europako Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea edukitzea, edo Europako Batasunak egin eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenen bidez langileen zirkulazio askea duten estatuetakoa izatea.

Aurkez daitezke, halaber, Europako Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea dutenen ezkontideak ere, baldin eta zuzenbidez banatuta ez badaude, bai eta haren ondorengoak eta bere ezkontide zuzenbidez banatu gabearen ondorengoak ere, 21 urte baino gutxiago badituzte, edota gehiago izanik ere haien kontura bizi badira.

2. 16 urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko gehienezko adina ez izatea.

3. Funtzioak behar bezala betetzea eragotz dezakeen gaixotasunik nahiz muga fisikorik ez izatea.

Segunda. Condiciones de los aspirantes.

Para ser admitido y, en su caso, tomar parte en el concurso-oposición serán requisitos necesarios:

1. Tener la nacionalidad de alguno de los Estados miembros de la Unión Europea, o ser nacional de algún Estado al que, en virtud de la aplicación de los Tratados internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por el Estado español, le sea de aplicación la libre circulación de trabajadores.

También podrán participar el cónyuge de los nacionales de los Estados miembros de la Unión Europea, siempre que no esté separado de derecho, así como sus descendientes y los de su cónyuge, siempre, asimismo, que ambos cónyuges no estén separados de derecho, sean estos descendientes menores de 21 años o mayores de dicha edad y vivan a sus expensas.

2. Tener cumplidos 16 años de edad y no exceder de la edad máxima de jubilación forzosa

3. No padecer enfermedad ni defecto físico ni psíquico que impida el normal desempeño de las funciones propias del puesto.

4. Inolako administrazio publikoaren edo autonomia erkidegoetako konstituzio nahiz estatutu organoen zerbitzutik kendu gabea izatea eta funtzio publikoak betetzeko ezgaituta ez egotea.

4. No haber sido separado/a mediante expediente disciplinario del servicio de las Administraciones Públicas o de los órganos constitucionales o estatutarios de las CCAA, ni hallarse inhabilitado para el ejercicio de las funciones públicas.

5. DBHko tituluaren jabe izatea.

5. Estar en posesión del título de Educación secundaria obligatoria.

6. Euskarari dagokionez, beharrezkoa izango da euskaraz hitz egiten jakitea.

6. Será necesario saber hablar en euskara.

Hirugarren hizkuntza eskakizunaren edo baliokidearen jabe izatea baloratuko da (eskakizun hori HAEE-k emandako 3. hizkuntz eskakizun agiri edota EGA-ren agiriaren bidez egiaztatu ahal izango da).

Se valorará el perfil lingüístico 3. (acreditado mediante la presentación del perfil 3 emitido por el IVAP o del EGA).

7. B mailako gida baimena izatea

7. Estar en posesión del carnet de conducir nivel B

8. Esperientzia izatea sukaldari bezala edo laguntzaile bezala.

8. Tener experiencia como cocinero-a o ayudante de cocina

Hirugarrena. Eskabideak.

Hautapen prozesuan onartua izateko eskabideak Zerain Dezagun Fundazioko lehendakariari zuzenduko zaizkio. Eskabideak Erregistro Zerbitzuan aurkeztuko dira, oinarri hauek Zerain Dezagun Fundazioko Iragarki taulan argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 30 egun naturaleko epean.

Era berean, oinarri hauek udal web orrian ere argitaratuko dira :

<http://www.zerain.eus/zerain-ezagutu/herria/zerain-dezagun-fundazioa/>

Izangaiek adierazi behar dute betetzen dituztela 2. oinarrian ezarritako baldintza guztiak –erreferentzia gisara eskabideak aurkezteko eguna hartuta–. Era berean, lehiatzaileek honako dokumentuak aurkeztu behar dituzte eskabidearekin batera:

1. NAN eta gida baimenaren fotokopia.
2. Hautapen prozesuan parte hartzeko eskatzen den titulazioaren fotokopia.
3. Kasua bada, 3. hizkuntza eskakizuna (edo baliokidea) betetzen duela egiaztatzeko agiriaren fotokopia.
4. Eskabidean alegatutako merituen egiaztatzeko dokumentuak, lehiaketa fasean baloratzeko. Ez dira baloratuko eskaerak aurkezteko epearen barruan zehazten eta egiaztatzen ez diren dokumentuak.

Tercera. Instancias.

Las instancias solicitando ser admitido/a al proceso selectivo se dirigirán al presidente de Zerain Dezagun Fundazioa y se presentarán en la Oficina de Registro en el plazo de 30 días naturales contados a partir del día siguiente al de la publicación de las presentes Bases en el Tablón de Anuncios de Zerain Dezagun Fundazioa.

Asimismo, estas bases también se publicarán en el portal web

<http://www.zerain.eus/zerain-ezagutu/herria/zerain-dezagun-fundazioa/>

Los/as aspirantes deberán hacer constar que reúnen todas y cada una de las condiciones exigidas en la base 2.^a, referidas siempre a la fecha de expiración del plazo de presentación de instancias. Además, adjuntarán a la instancia la siguiente documentación:

1. Fotocopia del D.N.I y carnet de conducir.
2. Fotocopia de la titulación requerida para tomar parte en el proceso.
3. Fotocopia, en su caso, del documento acreditativo de alcanzar el perfil lingüístico 3. o equivalente.
4. Documentos que acrediten los méritos alegados para su valoración. No serán objeto de valoración aquellos que no se detallan y acrediten con la instancia durante el plazo de presentación de solicitudes.

Laugarrena. Izangaiak onartu.

Onartutako eta baztertutako izangaien zerrenda ZERAIN DEZAGUN FUNDAZIOAREN Web orrian erakutsiko da.

Bosgarrena. Epaimahai kalifikatzailea

Epaimahai kalifikatzailea honela osatuko da:

- Zerain Dezagun Fundazioaren Lehendakaria, Amaia Junquera.
- Ilazki Azaldegi Zeraingo turismo bulegoko kudeatzailea.
- Patxi Bengoa, Zeraingo udaleko idazkaria.

Seigarrena. Lehiaketaldia.

Ondorengo merituak baloratuko dira, baldin izangaiek beren eskaeretan alegatu badituzte eta eskaerarekin batera erantsi beharreko dokumentazioarekin behar bezala egiaztatu badituzte.

1. Formazioa.

Hautatutako lanpostuarekin zerikusia duten ikasketak hartuko dira kontuan.
Gehienez 5 puntu.

- Sukaldaritza ikasketak: 1,5 puntu tituluko.
- Turismo arloko goi mailako moduluaren titulua: 1 puntu tituluko.

Cuarta. Admisión de los aspirantes.

La lista de aspirantes admitidos y excluidos será expuesta en la página Web de ZERAIN DEZAGUN FUNDAZIOA.

Quinta. Tribunal Calificador.

El Tribunal Calificador estará constituido de la siguiente forma:

- Amaia Junquera presidenta de Zerain Dezagun Fundazioa.
- Ilazki Azaldegi responsable Oficina de turismo de Zerain.
- Patxi Bengoa secretario del ayuntamiento de Zerain.

Sexta. Fase de Concurso.

Se valorará los siguientes méritos, siempre que hayan sido alegados por los aspirantes en su instancia y resulten suficientemente acreditados mediante la documentación que se habrá de adjuntar a la misma.

1. Formación.

Estudios relacionados con el puesto de trabajo elegido: **5 puntos como máximo.**

- Estudios de cocina: 1,5 puntos por título.
- Títulos de los módulos de ciclo formativo de grado superior en turismo: 1 punto por título.

2. Esperientzia.

Eskainitako lanpostuarekin zerikusia duten lanpostuetan aritu izana hartuko da kontuan. **Gehienez 5 puntu.**

- Sukaldari gisa lan egin izana: 0,25 hilabeteko, gehienez 2,5 puntu.
- Laguntzaile gisa lan egin izana: 0,25 puntu hilabeteko, gehienez 2,5 puntu.

Esperientzia curriculumaren eta ziurtagirien bidez ziurtatuko da.

Zazpigarrena. Oposaketa fasea

Atal hau elkarrizketa baten bidez gauzatuko da, elkarrizketa lanpostu bakoitzean puntuazio altuena atera duten bost pertsoneri egingo zaie eta **gehienez bost 5 punturekin** baloratuko da.

Zortzigarrena. Lan-poltsa osatzen dutenen zerrenda.

Izangai bakoitzaren azken kalifikazioa hautaketa prozesu osoan lortutako emaitzak batuta aterako da.

Hautaketa bukatu ondoren, lortutako puntuazioaren ordenaren arabera behin betiko zerrenda argitaratuko du ZERAIN DEZAGUN FUNDAZIOAREN web orrian, eta onarpen proposamena igorriko du, aldi baterako lan-poltsa moduan erabili ahal izateko.

2. Experiencia.

Haber trabajado en otros puestos que mantengan relación con el puesto de trabajo ofertado: **5 puntos como máximo.**

- Como cocinero(a): 0,25 puntos por mes, 2,5 puntos máximo.
- Como ayudante (a): 0,25 puntos por mes, 2,5 puntos máximo.

La experiencia se acreditará a través del curriculum y certificados.

Séptima. Fase de oposición

Consistirá en una entrevista personal a las 5 personas con la puntuación más alta por cada puesto. Se valorará con **5 puntos como máximo.**

Octava. Listado de integrantes de la bolsa.

La calificación final de cada aspirante estará constituida por el total de las puntuaciones obtenidas en el proceso selectivo.

Una vez finalizado éste, se hará pública en la página Web de ZERAIN DEZAGUN FUNDAZIOA la relación definitiva de aspirantes que pasarán a formar la bolsa de trabajo, por orden de puntuación alcanzada, y elevará la propuesta de aprobación, para su utilización como Bolsa de Trabajo temporal.

Bederatzigarrena. Agiriak aurkeztea eta mugikortasun baldintza.

Lanean hasi aurretik onartu direnen zerrendan sartutako pertsonak ZERAIN DEZAGUN FUNDAZIOAREN idazkaritzan aurkeztu beharko dituzte deialdiaren oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituztela frogatzeko agirien originalak.

Adierazitako epean agiriak aurkezten ez badituzte, edo agiriak azertu ondoren oinarrietan eskatutako betebeharrak ez dituztela betetzen ondorioztatzen bada, ezin izango dira lan-poltsan egon, eta baliorik gabe geldituko dira burutu dituzten ekimen guztiak, hautaketa proban parte hartzeko eskabidean datu faltsuak jartzeagatik izan dezaketen erantzukizuna gorabehera.

Lan-poltsa osatzen duten pertsonak, lana egiteko deitzen zaien unean eta lanaldi guztian zehar, Zeraingo herrigunera joateko bitartekoak eduki beharko ditu.

Hamargarrena. Gorabeherak.

Oinarri hauetan zehaztuta ez dauden kasuetan ondorengo xedapenak aplikatuko dira: Martxoaren 10eko 364/1995 Errege-dekretua, Estatuko Administrazioan langileak sartzeko Arautegi Orokorra onartzen duena; uztailaren 6ko 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoarena; eta horiekin bat datozen xedapenak.

Novena. Presentación de documentos y condición de movilidad.

Antes de su incorporación al trabajo, las personas incluidas en la lista de admitidos, deberán presentar en secretaría de ZERAIN DEZAGUN FUNDAZIOA la documentación original que acredite que reúnen las condiciones exigidas en las bases de la convocatoria.

Quienes dentro del plazo indicado no presentasen la documentación, o se dedujera que carecen de alguno de los requisitos exigidos en las bases, no podrán formar parte de la bolsa de trabajo y quedarán anuladas con respecto a los mismos todas las actuaciones, sin perjuicio de la responsabilidad en que hubieran incurrido por falsedad en la solicitud inicial.

Las personas integrantes de la bolsa, en el momento que sean llamadas para trabajar y mientras dure su período de trabajo, deberán de tener disponibilidad para acceder al casco de Zerain.

Decima. Incidencias.

En lo no previsto en las presentes bases, será de aplicación supletoria lo dispuesto en el Real Decreto 364/1995, de 10 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento General de ingreso del personal al servicio de la Administración del Estado, la Ley 6/1989, de 6 de Julio, de la Función Pública Vasca, y disposiciones concordantes.

Hamaikagarrena. Kontra egitea.

Deialdiaren, bere oinarrien eta deialditik erator daitezkeen egintza administratiboan aurka egin dezakete interesdunek, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedurarenak, aurreikusitako epeetan eta moduan eta indarrean dauden eta gaian aplikagarri diren arauen arabera.

Zerain, 2021eko apirilaren 30ean

Undécima. Impugnaciones.

La presente convocatoria y cuantos actos administrativos se deriven de ella, podrán ser impugnados en los casos y en la forma establecidos por la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y demás normativa en vigor concordante y aplicable en la materia.

Zerain 30 de abril de 2021.

ZERAIN DEZAGUN FUNDAZIOA
LEHENDAKARIA/PRESIDENTE

Stua./Fdo.: Amaia Junquera Landeta